



# Ahozkoatasuna Eskolan

---

Joxerra Garzia

2008-05-14



# Eskolaren egiteko nagusia

---

- Ikasleak “mundurako” prestatu



# Ahozkotasuna eskolan lantzea

---

- Zer EZ den:
  - Tarteka-marteka hitz egiten utzi
  - Eskolaz kanpoko ekimenak antolatu
  - Irrati, antzerki, bertso... Lantegiak
- Ondo dago: EZ da ASKI



# Ahokotasuna eskolan lantzea

---

- Eskolaren egiteko nagusia beteko bada:
  - Gaur egungo gizartea ("mundua) aztertu
  - Ahokotasunaren lekua gizartean
  - Ahokotasuna zer den ulertu
- Ezagutza horretatik erantzun bat eratu
  - Curriculumean txertatua
  - Eskola-ibilbide osorakoa





## Ahozkotasuna: Ilustrazioa

---

- Eskolatze orokorra
- Idatzizkoaren nagusitasuna: Castells
- ✓ “Kultura alfabetatua eta ikus-entzunezko adierazpena hala —inplizituki eta esplizituki, bietara— bereiztu eta sozialki hierarkizaturik, **giza jarduera idatzizko diskurtsoan oinarritu** izanak bere kalte ordaina izan zuen: soinuen eta irudien mundua arte ederren oholtzapean zokoratua geratu zen, alor pribatuan emozioak eta alor publikoan liturgia beste jardun-lekurik gabe”.
- Belarria vs. Begia: Simone



## Gizartea: XX. mendeko teknologiak

---

- Zinema
- Telefonoa
- Irratia
- Telebista



## Gizartea: XX. mendea, ahozkoatasuna

---

- Manuel Castells: ahozkoatasunaren mendekua
  - ✓ “Jakina, **ikus-entzunezko kulturak** mendekua hartu zuen XX. mendean, zinema eta irratiarekin aurrena, eta telebistarekin gero, **komunikazio idatziak baino eragin handiagoa** baitu geroztik jende gehienaren gogo-bihotzetan”.
- Oralistak: Parry, Lord, Havelock, Ong...
- Eten erabatekoa (Great Divide)
- Finnegan, Foley...



# Gizartea: XXI. mendeko teknologiak

---

## ■ Internet

- ✓ WWW
- ✓ Blaga (sinkronikoa eta asinkronikoa)
- ✓ E-mail
- ✓ Mundu birtualak

## ■ Sakeleko telefonoa

- ✓ Hizketa
- ✓ SMSak: gutun hiztuna / telefono dei isila?



## Gizartea: XXI. mendea, ahozotasuna-1

---

- Crystal, *Language on the Internet*.
- “Internet gero eta gehiago gizarte ikuspegitik kontsideratzen denez gero, hizkuntza gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da kontsiderazio horretan. Izan ere, hobekuntza teknologikoak eta pantallako irudi-festa handiak diren arren, Interneten funtzioetako edozein aztertzen hastea aski da, funtsean hizkuntz izaera duela ohartzeko. Internet omen den iraultza, beraz, hizkuntz iraultza izango da, ezer izatekotan”.



## Gizartea: XXI. mendea, ahozko ahozotasuna-2

---

- Morris, *Perfect e-mail* :
  - E-mail eraginkorretan, ahozko diskurtsoaren egitura
  - Formato eskasa, gaitasun diskurtsibo handia
  - **Diskurtsoak azkar eta egoki egituratzea**, gaitasunik preziatuena enpresetan, alor guztietan



## Gizartea: XXI. mendea, ahozkoatasuna-3

---

- Norman Fairclough:

- “Hizkuntza-produktuen sailean sartzekoak dira, esaterako, kultur industriren objektuak, testu liburuak eta telebista programak. Baina baita harreragileek eta saltzaileek beren bezeroei hitz egiteko darabilten mintzamoldea ere. **Hitz egiteko modua zerbitzuaren parte da, saltzen den horren parte**”.



## Gizartea: Ahozkotasuna arazo-1

---

- Lazaro Carreter: *El Dardo en la palabra*
  - Epaileren batek gutun bidez aitortu didanez, sekulako ahaleginak egin behar izaten ditu zuzentasunari eutsi eta beren auziak hizkera higuigarria darabilten abokatuen esku uzten dituzten auzipetuen kontrako epaiak ez emateko. **Abokatuak ere komunikatzaile baitira berez, parlamentariak bezala,** eta ahantzi bide dute Erretorika, jainkozko arte hori, zuzenbidearen eta politikaren plazetan sortu zela. Eta **ikasgelen barruan ere horrelako hizkuntz gabeziak nabarmenak badira, zer espero liteke kanpoan?**



## Gizartea: Ahozkotasuna arazo-2

---

- Lazaro Carreter, *El Dardo en la Palabra*:
  - Izan ere, hori **[kazetari ona] izateko**, ez baita aski egiazko informazioa eskaini eta ganorazko iritziak ematea; horrez gain (agian horren gaineratik), ezinbestekoa da **erakustea, erakustaldirik egin gabe, hizkuntza menderatzen dela.**



# Gizartea vs. Eskola

---

- Gizartearen premia-eskaerak:
  - Komunikatzaile eraginkorrak
  - Azkar eta egoki. Ahoz eta idatziz
- Eskolaren erantzunak:
  - Ikasle ideala, ikasle mutua
  - Idatzizkoan ere, zuzen-jatortasun hutsa



# Ahozko vs. Idatzizko

---

- Kontinuum bat da
  - Kontua ez da ahozko vs. Idatzizko
- Komunikazio eraginkorra da kontua
  - Komunikazio egoerei aurre egiten jakin



# Komunikazio eraginkorra

---

- Euskararen kalitatea

- Zuzen
  - Jator
  - Egoki
- ONA

- Jarioa vs. Diskurtsoa



# Diskurtso motak

---

- 1. BEGIZ jasotzekoa
  - Testu hutsa
- 2. Belarriz jasotzekoa
  - Testua + ahotsa
- 3. Begi-belarriz jasotzekoa
  - Testua + ahotsa + gorputza +



# Diskurtsogintzaren Alorrak

---

- Inventio
  - Argudio egokiak inguratu
- Dispositio
  - Egituratu, agudioak ordena egokian paratu
- Elocutio
  - Egokiro formulatu

.....TESTUA:.....

- Memoria
  - Gogoan hartu / gogoangarri bihurtu
- Actio
  - Ahotsa: nEGA + ATiA
  - Gorputza: Gorputz adierazpena + Gidoi erretorikoa



# Inventioa langai-1

---

- Inventio-orria
  - Gai barruko argudioak
  - Gaitik kanpoko argudioak
- Argudio-biltegia:
  - Jan eta jaso
- Analogiaren giharra:
  - Ekarri eta eraman



# Inventioa langai-2

---

- Prokusto
- Zirriborroa
- Aurrerago eta goxoago
- Kaioak
- Txoria gari artean gose
- Zerri goseak ezkurra amets



# Dispositioa langai-1

---

- Diskurtsoa, osotasun bakarra
- Kalkulu erretorikoa
  - Apaiz erretzailearena
  - Alardea



## Dispositioa langai-2

---

Hiri handi batean, kalean, A galdezka hasi zaio Bri:

-A: Barkatu, ba al dakizu non dagoen autobus-geltokia?

-B: Ez, sentitzen dut, baina ez dakit.

-A: Lasai, berdin dio; eskerrik asko.



# Elocutioa langai-1

---

- Noiz, zer, zertarako
  - Esapide aurrefabrikatuak vs poesia
- Baliabide poetiko-erretorikoak
  - Presentzia, ikuspegia, bategitea
  - Aldi berekoak aldi berean esan
  - Esan ezin dena esan
  - Hartarako, harentzat, harakoxe
  - Konkrezioa



## Elocutioa langai-2

---

- Zeharo galduta zegoen
- (Zu gabe), egunak luze eta gauak luzeago
- Protokolo-otordu mordoia irentsi
- Goseak amorratzen, hil zorian



## Elocutioa langai-3

---

- **Bi urte...** Bi urte, bi urte dira. Eskailerako administrazioa gainerik kentzeko adina denbora. Bi urte, garbigailuaren garantia. Bi urte, harreman baten finkatzea. Bi urte eta bi egun, harremanaren lehen krisia. Bi urtetan ontzen da ur-ardoa ere. Bi urtetan, haurdun geratu, sustoa hartu, sustoa pasa, erditu eta bikiak izan; bi urte, eta bat zena hiru. Bi urtetan ikastolako lagun lotsatia telebistako kantari izar. Bi urte, baduenaren hogeita lau soldata; bi urte, hamaika zor. Bi urte eta ispiluan beste aurpegi bat. Bi urte, sexurik gabe bizi litekeela, ez dela hainbesterako... auto-konbentzitzen hasteko epe etsia. Bi urte, eta haurrak ikasi du oinez. Bi urte, munduari biratxo bat emateko denbora polita. Bi urte, eta haurrak ikasi du hizkuntza oso bat; bizitza guzti baten oinarri: bi urte. Bi urte da 24 hilabete; 730 egun; 1079 zurito; 12 Iberdrolako faktura; 4.911 telefono dei; 647 kafe “ebaki, motz eta aparrik gabe, mesedez!”; 8 Fairy poto; eta 15 hortzetako zepilo.



# Testugintzaren ajeak

---

- Filosofia, iazko ikasturtean ez bezala, historian zehar izan diren pentsalaririk nabarmenen eskutik ezagutuko duzu aurrean duzun materialarekin. Gaur egun zientzia eta pentsamendu pragmatikoa nagusi izanik, gainerako ekintza moduak itzalpean dauden unean, filosofiari duinezko lekua eman beharrean gaude arrazoi ugari tartean direlarik.



# Memoria langai

---

- Gogoan hartu
  - Argudio-biltegia
  - Sormena, oroimenaren kudeaketa egokia
- Gogoangarri bihurtu
  - Epe luzeko memoriaren langa
  - Esaera zaharrak
- Paperetik airera:
  - Irakurriz
  - Buruz ikasita
  - Gidoi baten laguntzaz



# Actioa langai: nEGA lantzen

---

- nEGA: Norberaren esateko gaitasuna
  - Intentsitatea, ebakera, lastertasuna, tonua, intonazioa, pausa-isiluneak
    - Osagai bakoitzean gutxienez hiru maila
    - Isilik ezin, goratik jardun
  - Distantzia-erregistroak
    - Intimoa, lagunartekoa, jendartekoa, jendaurrekoa



# Actioa langai: nEGA aplikatzen

---

Dzu! Dzu! Dzu! Dzu!

Gorriak dzu! Urdinak dzu!

horiak dzu!

- Asto bati arre esan, beste batek entzun dezan
- Horrek berorika egingo lioke bere buruari...  
baleki!



# Ahotsaren kalkulu erretorikoa

---

Nire bihotz gaixua  
penatua dago;  
ezin egon liteke,  
oi, penatuago!  
Gertatzen zaizkidala  
aspaldian nago  
egunak luze eta  
gauak luzeago.



# Actioa langai: ATiA

---

- ATiA: Ahozko Testu Idatzia

Adiskideok:

Hitzaldi hau beste honen konpainia on-atseginean ematera gonbidatu nindutenean, zaharrak berri egiteko arriskuaz mintzatu nintzaion adiskide bati. Alegia, azken bi edo hiru urteotan euskararen egoerari buruz plazaratu ditudan hausnarketak errepikatzeko zoriak artegatzen ninduela. Orain arte esandakoak ezagutzen dituen eraman oneko entzulea nuen, jakina, gogoan. Adiskidearen galdera erretoriko batek – zerk osatzen eta berritzen du gogoeta, gogoeta berak ez baldin bada?–, galdera erretoriko horrek desenkusarako bide guztiak itxi zizkidan orduan.



# Actioa langai: Gorputza

---

- Gorputzaren jirako alderdiak:
  - Begirada
    - Gorputz-orientazioa eta jarrerak
    - Esku-besoak
    - Aurpegierak
    - Tramankulu lagungarriak
- Gidoi erretorikoa
  - Testu idealera hurbiltzeko tresna



## Ahozketasuna Eskolan. Ondorioak-1

---

- Komunikatzaile egokiak, gizartearen eskaera
  - Ahozko zein idatzizko, egokitasuna xede
  - Ahozko jardun hutsa, apaingarri hutsa
- Eskola errotik aldatu
  - Egokitasunak onura ekarriko lioke eskolari
  - Ez da hizkuntza alorreko kontua soilik
  - Denbora, koherentzia, baliabideak, laguntza



## Ahozketasuna Eskolan. Ondorioak-2

---

- Azaldu dugun guztia landu ezean, ezin esan eskolan ahozketasuna lantzen denik
- Eskolaren egiteko nagusia: ikasleak mundurako prestatzea.
- Ari al gara?